



Andoingo Udala

## SANJUANAK 2019 KARTEL LEHIAKETA

**San Juan jaiak 2019** iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia egiten du Andoingo Udaleko Kultura Batzordeak.

Jaiak iragartzeko kartelaz gain, programen azala ere izango da.

**01.- Gaia eta kartelaren testua.** Gaia: **Sanjuanak 2019 / ANDOAIN**, hori izango da kartel guztietan, ongi nabarmendurik, azalduko den testua. **Edukiari eta ideiarri dagokienez, ez dute pertsonen aurkako edozein eratako errespetu falta erakusten duten jarrerarik aurkeztuko.**

**02.- Partaidetza.** Lehiaketan nahi duen orok parte har dezake, bakoitzak, gehienez, 3 obra aurkezteko aukera izango duelarik. Hori bai, obra horiek, ideia nahiz edukiari dagokionez originalak izan beharko dute derrigor, eta jendaurrean aurkezteko moduan aurkeztuko dira.

**03.- Tamaina.** Kartelek 60 zm-ko altuera eta 42 zm-ko zabalera izango dute, diseinua neurri horietan edo neurri horien proportzioan aurkeztu beharko da.

**04.- Kolorea eta teknika.** Aukerakoa. Aukeratutako teknika edozein delarik ere, kartela paperean edo euskarri gogor batean aurkeztu beharko da, 60zm x 42 zm-ko tamainan edo horien proportzioan. Horretaz gain **euskarri informatikoan ere aurkeztu beharko da.**

Udalak irudi korporatiboa sartuko du jaiak iragartzeko kartelean eta jai egitarauan kokatzeko egilearekin hitz egingo da.

**05.- Aurkezteko epea. 2019ko maiatzaren 6 arte.**

**06.- Aurkezteko lekua.** Bastero Kulturgunean, 10:00etatik, 13:00era eta 16,30etatik 19,30etara.

**07.- Identifikazioa:** Kartelaren atzealdean egilearen adina eta lema edo izenburua jarriko dira. Lan bakoitzarekin batera kartazal itxi bat entregatuko da. Kartazalaren barruan egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa adieraziko dira eta kanpoaldean kartelaren lema edo izenburua eta egilearen adina.

**08.- Informazio telefonoa.** 943 303 540

**09.- Mailak:** Leihaketak bi maila izango ditu,

1. 17 urtetik gorakoena eta
2. 12-16 urte artekoena.

**10.- Sariak.** Epaimahaiaren iritziz egokienak diren lanentzako,

- |          |          |          |
|----------|----------|----------|
| 1. maila | 1. Saria | 300,00 € |
|          | 2. Saria | 190,00 € |
| 2. maila | 1. Saria | 130,00 € |
|          | 2. Saria | 90,00 €  |

Bi sariak pertsona berdinari ematen bazaizkio, epaimahaiak azken saria aukeratutako hurrengo kartelari emateko gaitasuna izango du.

Epaimahaiaren iritziz, baldin eta aurkeztutako lanen artean saria jasotzeko adina kalitate duenik ez badago, lehiaketa huts deklaratu ahal izango du. Hala balitz, epaimahaiak kartela edozein artista edo inprentari zuzenean enkargatzeko aukera izango du.

Kartela ondo inprimatzeko teknika aldetik tonalitate aldaketaren bat edo beste beharko balu, aldaketak agindu ahal izango lituzke Epaimahaiak, alde zuzenetik egileari galdetuta eta bere adostasunarekin.

**11.- Epaimahaia.** Kartela aukeratzeko **bozketa** bi fasetan egingo da:



## Andoaingo Udala

---

1) **Herritarren bozketa** txanda: aurkeztutako kartelak udaletxeko web orrian zintzilikatuko dira, eta **maiatzaren 9tik 11ra** egingo da. Herritar bakoitzak bozka bakarria eman lezake.

2) **Epaimahaiaren bozketa** txanda: 5 pertsonak osatuko dute eta, herritarrek emandako bozkek kontuan hartuta, arlo teknikoa zein artistikoa baloratzea izango dute xede. Erabakia apelaezina izango da.

Sari banaketaren eguna eta ordua prentsaren bidez jakinaraziko da.

**12.- Erakusketa.** Lehiaketara aurkeztutako kartelak udalak jendaurrean erakutsi ahal izango ditu ekainean zehar. Espazio kontua dela eta, Epaimahaia izango da zeintzuk jarriko diren erabakiko duena, beti ere kartelen kalitate artistikoa kontuan hartuta.

**13.- Lanak noiz jaso.** Saririk irabazi ez duten originalak aurkeztu ziren lekuan bertan jaso ahal izango dira **2019ko ekainaren 28an** 10,00etatik 13,00etara. Epe horretan jaso ez direnekin Udalak erabakiko du zer egin.

**14.-** Saritutako kartela Andoaingo Udalaren jabetzapean geratuko da eta nahi hainbat erreprodukzio egiteko eskubidea izango du. Erreprodukzio horiek egoki deritzon publizitate lanetan erabiltzeko ahalmena izango du udalak eta kasu horietan autoreek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru-kopururik ere ezingo dute jaso.

**15.-** Udalak ez du bere gain hartzen lehiaketara aurkeztutako lanei gerta dakiekeen edonolako kalteren erantzukizuna.

**16.-** Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar berarekin.

Andoainen, 2019ko apirila.

**Kultura Batzordea**